

MATRIKULA ETA TASAK

- * Ikastaldeak 9 pertsonakoak gutxienez izan behar dira.
- * Astean 10, 7,5, 6 edo 5 orduko ikastaroak eta C2 online: bigarren epea abenduaren lehenengo astean ordaindu beharko da; urtarrilean hasita, berriz, bigarren zatia otsailaren azken astean.
- * Astean 20 orduko ikastaroak: hiruhilekoa bi epetan ordainduz gero, bigarren zatia hasi eta lau astera ordaindu beharko da; ikasturte osoa ordainduz gero, bigarren zatia abenduaren bigarren astean ordaindu beharko da.
- * Udako ikastaroak: epe bakarrean ordaindu beharko dira.
- * **Autoikaskuntza:** 9 hilabeteko ikastaroa bi epetan ordain daiteke, bigarrena otsailaren erdialdean. 4 hilabeteko eta udako ikastaroak epe bakarrean ordaindu beharko dira.
- * **Ordaintzeko modua:** helbideratzea edo transferentzia. Kutxabank ES32 2095 0037 00 9107033096

MATRIKULA ITZULTZEA ETA BAJA

- * Ikaslea lehenengo 3 egunetan baja izanez gero, ordaindutako diru kopuru osoa itzuliko zaio (barnetegiaren kasuan, ikastaroari dagokiona gordeko da, baina mantenuari dagokiona ez da bueltatuko); **autoikaskuntzaren kasuan**, ikaslea ikastaroaren lehenengo astean baja izanez gero.
- * **Baja bulegoan jakinarazten denetik** jasotzen ez diren eskola-orduen arabera kopurua ikasturte bukaerara arte (irailera arte) gordeko da. Ikastaroaren erdialdetik aurrerako bajen dirua ez da gordeko.
- * Ikasturte osoa ordaindu duena abenduan baja bada, 2. zatiari dagokiona bueltatuko zaio.

EUSKARA MAILAK. TITULUEN BALIOKIDETZA

	A1	A2	B1	B2	C1	C2
HABE	A1	A2	B1	B2	C1	C2
HAEE-IVAP			1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
OSAKIDETZA			1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
ERTZAINZTA				1. HE Ertzaintza	2. HE Ertzaintza	
HEZKUNTZA				Irakasleen 1. HE	Irakasleen 2. HE EGA	
HIZKUNTZA ESKOLA			Tarteko maila	Maila aurreratua	C1 Gaitasun maila	

IKASTAROA

- * **Egutegia** www.ulibbarri.eus web-orrian **Ikaslea** atalean izango da.
- * Irakasleak **bertaratutako orduak** jasoko ditu. Justifikatu beharrekoa dagokion tokian jakinarazi beharko du ikasleak (*IRALEko ikasleek irakasleari emango dizkiote justifikanteak*).
- * **Txandaka** etortzeko ikasturte hasieran egin behar da eskaera bulegoan.
- * 18 urtez beherako ikasleen legezko tutoreek datu akademikoen berri jakin nahi izanez gero, LOPD inprimakia bete beharko dute bulegoan.
- * Nork bere **datu akademikoak** www.habe.euskadi.eus web-orrian ikus ditzake ikaslearen sarbideetik, erabiltzailea eta pasahitza sartuta (aldatu ez baduzu, **NAN zenbakia letra gabe** sartu behar duzu bietan).

PROBAK ETA EBALUAZIOAK

- * **PROBAK:** hasierako diagnosi-proba, tarteko proba eta maila bukaerako proba egingo dira (maila-arduradunek zehaztuak). **Salbuespenak:**
 - a) **Hasierako diagnosi-proba.** Azken 2 hilabeteetan gurean aritu bada, aitortutako maila onartu ahal zaio; azken 2 hilabeteetan beste euskaltegi batean aritu bada, ibilbidea onartu ahal zaio; titulu ofiziala edota baliokidea badu, onartu ahal zaio. Kasu hauetan irakasle berriak berretsiko du ala ikasleari diagnosa egingo dio.
 - b) **Tarteko proba.** Kasu hauetan ez da behar: ikasleak A1A0 eta A2A1 abiapuntua duenean; beranduko alten kasuan, taldearen ebaluazio-datek aukerarik ematen ez dutenean; HABEren 1. deialdiari begira, B2, C1 eta C2 mailetan ebaluazioa martxora aurreratzen denean; ordu gutxiko moduluetan (Probak eta ebaluazioak dokumentuan, moduluko tauletan, zehaztuta).
 - c) **Probarik egin nahi ez duen ikasleari dokumentua emango zaio sinatzeko.**
- * **Maila bukaerako proba gainditu behar da** maila aitortzeko (gainditzeak ez du esan nahi maila gainditu duenik, suspentsioa argudiatzeko klaseko lanak dira beharrezkoak). Ebaluazio jarraituko maila bukaerako probaren idazmena eta mintzamina taldeko irakasleak eta beste irakasle batek ebaluatuko dute (zehaztutako astean).
- * **EBALUAZIOAK (HABEren plataformara notak igo):** maila egiteko ordu kopurua betetzen denean edota ikastaroaren bukaeran egingo dira. Tarteko proba egiten denean, tarteko ebaluazioa egin daiteke ikasleren bati maila aitortzeko (abiapuntu-maila ezberdinak izan daitezkeelako). Horretarako, mailaren bukaerako proba erabiliko da.
- * **Ebaluazio-probak** zein astetan egingo diren ikasturte hasieran **jakinaraziko die irakasleak ikasleei.**

Ebaluazio-datak Probak eta Ebaluazioak dokumentuan zehaztuta daude, modulukako tauletan, eta bertan **adierazitako astean** egingo dira. *Euskaltegiak aurreikusitako ebaluazio-datak alda ditzake kudeaketan gerta litezkeen gorabeheren arabera.*

- * **B2, C1 eta C2 mailak** ebaluazio jarraituaren bitartez egiaztatzen ez diren bitartean, **ebaluazioa martxoan** egingo da HABEren lehenengo deialdiari begira eta irailaren lehenengo egunetan bigarren deialdiari begira.
- * **B2, C1 eta C2 mailako entzumena eta irakurmena:** HABEK onartuko du euskaltegiak trebetasun horietan ezarritako emaitza. Horretarako, maila egiaztatzeko egindako bukaerako probaren kalifikazioak erabiliko dira. *BECen ez dira trebetasun horiek egingo.*
- * Lehen deialdian **entzumen- eta irakurmen-probak** soilik gaudituz dituen ikasleak trebetasun-proba horietako emaitzak **gordeko zaizkio bigarren deialdirako**, eta beraz, idazmen- eta mintzamen-probak soilik egin beharko ditu. Halaber, **idazmeneko proba ere** gaudituzko balu, mintzamen-proba soilik egin beharko luke bigarren deialdian.

TITULU OFIZIALAK (BALDINTZAK)

- * Euskaltegian matrikulatuta egoteak aukera ematen du **HABEren tituluak** eskuratzeko, betiere HABEK ezarritako baldintzak beteta.
- * **Informazio eguneratua HABEren web-orrian** argitaratuko da: **www.habe.euskadi.eus**.
- * Hauexek dira **2018. urteko** ebazpenaren irizpide nagusiak:
 - * **A1, A2 eta B1 gaitasun-mailak ebaluazio jarraituaren bitartez egiaztatzeko baldintzak:**
 - Oro har, ikasleak **50 ikastordu gutxienez hartuak** izan beharko ditu, eta **udako ikastaroetan 30 ikastordu gutxienez**.
 - **Aurrez aurreko ikasjardunean**, emandako ikastorduen **% 75 gutxienez hartuak** izatea; eta **autoikaskuntzan**, berriz, **mintza-saioetan**, ikastaroaren guztizko **ordu teorikoen % 7,5 gutxienez**.
 - **Maila gauditua** beharko du izan (**maila egiaztatzeko bukaerako proba gauditua**) eta ikastaroaren hasieran abiapuntuak, gehienez, maila gaudituzkoa baino bat gutxiago izan beharko du. (Ebaluazio-datak Probak eta ebaluazioak dokumentuan, modulukako tauletan, zehaztuta daude).
 - * **Deialdi itxian parte hartzeko baldintzak B2, C1 eta C2 maila dagokienez:**
 - Ikasleak **30 ikastordu gutxienez hartuak** izan beharko ditu; eta **autoikaskuntzan**, berriz, **15 ordu online, tutoretza bat eta 3 talde-saio gutxienez**. *Iraileko ikastaroei dagokienez, B2 eta C1 ikastaroetan lehenengo egunetik hasten diren ikasleek soilik izango dute aukera maila aitortzeko proba egiteko.*

B2 ETA C1 MAILAK

1.- Euskaltegian matrikulatuta egotea 2017ko ekainaren 1etik aurrera hasitako ikastaro batean.
2.- 2017ko ekainaren 1etik aurrera hasitako ikastaroetan euskaltegian **gauditua izan beharko du egiaztatu nahi den maila** 2018ko martxoaren 23rako, lehen deialdian; eta 2018ko irailaren 6rako, bigarren deialdian.

C1 gaitasun-maila eskuratzeko matrikulatuta egon eta ezarritako datarako maila gaudituz ez duenak B2 mailara aurkezteko aukera izango du, baldin eta ezarritako epean **azpimaila bat gaudituz** badu (abiapuntua B2B2 izanda, C1B2 gaudituz badu).

Idazmenean 15 puntura iritsi ez, baina 13 puntu gutxienez lortzen dituen ikasleak mintzamen-proban ateratako puntuekin konpentsatu ahal izango du. Edozelan ere, ezinbesteko baldintza izango da 13 puntu gutxienez ateratzea idazmen-proban, mintzamen-probara aurkeztu ahal izateko. 1. deialdian konpentsatu ez badu, ez zaio idazmen-probaren emaitza gordeko 2. deialdirako.

C2 MAILA

1.- Euskaltegian matrikulatuta egotea 2016ko urriaren 1etik aurrera hasitako ikastaro batean.
2.- 2017ko ekainaren 1etik aurrera hasitako ikastaroetan euskaltegian **gauditua izan beharko du egiaztatu nahi den maila** 2018ko martxoaren 23rako lehen deialdian; eta 2018ko irailaren 6rako bigarren deialdian.

Proiektua euskaltegiak ontzat eman ondoren, hurrengo bi deialdietan (2018ko bi deialdietan) baliatu ahal izango du azterketariak, eta entzumen- eta irakurmen-probak gaudituz gero, emaitzak gordeko zaizkio dagozkion hurrengo deialdietarako. *2016-2017 ikasturtean euskaltegiak proiektua ontzat eman, eta oraindik maila egiaztatu ez duten ikasleek ikasturte horretako ebazpenean aitortutako hurrengo deialdietan parte hartu ahal izango dute.*

- * **Izen-ematea** eta dagokion ordainketa burutzeko epea ebazpena atera eta handik hilabetera emango du argitara HABEK, www.habe.euskadi.eus atariaren bidez. HABEko matrikula martxo/apiril aldera izaten da 1. deialdirako eta irail aldera 2.deialdirako. Hauexek dira **2018. urteko** egiaztatze-prozesuetarako matrikula-epeak: 1. deialdirako apirilaren 9tik 16ra eta 2. deialdirako irailaren 14tik 25era.

- * **HABEK 2018ko irailean B1, B2, C1 eta C2 gaitasun-mailak egiaztatzeko azterketa-deialdi irekia egingo du interesaturik dauden herritar guztiei zuzendua.** Hauexek dira matrikulatzeko baldintzak:
 - Gutxienez 17 urte izatea edo 2018an betetzea.
 - C2 mailarako matrikulatzeko C1 mailako agiria izatea edota salbuetsita izatea.
 - Gehienez ere, bi gaitasun-mailerako matrikula daiteke deialdi honetan.
 - Matrikula egoki egin eta jarritako epean ordaintzea.** Batera ezina izango da deialdi libre honetan eta deialdi itxian parte hartzea maila berean.*
- * **Matrikula egiteko izen-ematea** eta dagokion ordainketa burutzeko epea: **2018ko irailaren 14tik 25era, biak barne. Matrikula-ordaina 60 eurokoa** izango da maila bakoitzeko.
- * Matrikula-epea itxi eta **hamar egun baliiodunen epean** emango du argitara HABEK www.habe.euskadi.eus atarian deialdi hau burutzeko maila bakoitzerako aurreikusitako **egutegia**: onartuen zerrenda argitaratzeko data, probak egiteko egunak eta lekuak, eta proben emaitzak jakinarazteko datak.
- * HABEK azterketen egutegia eta azterketak egiteko tokiak egokituko ditu, betiere eskaera-kopurua eta azterketak egiteko behar diren baliabideak kontuan hartuta. Baldintza bi horiek aintzat hartuta, aukera egongo da azterketa bat baino gehiago egun eta ekitaldi bakarrera bateratzeko.
- * **Hizkuntza Eskolako A2, B1 eta B2 azterketetara eta EGA azterketara libreki aurkeztu ahal izango da ikaslea.** Orain arteko deialdietan oinarrituta, Hizkuntza Eskolako matrikula otsail aldera izaten da eta EGAKoa urtarilaren hasieran 1. deialdirako eta uztailaren hasieran 2. deialdirako.

HABEREN ZIURTAGIRIAK

- * **Ebaluazio jarraituaren bidez mailaren bat egiaztatu** duen ikasleak **lau garai** izango ditu ebaluazio jarraitua balio egiaztatzaileaz aplikatzeko: lehenengoa, urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko ikastaroak bilduko dituena; bigarrena, urriaren 1etik martxoaren 31ra bitartekoak bilduko dituena; hirugarrena, urriaren 1etik ekainaren 30era bitarteko ikastaroak bilduko dituena; eta laugarrena, uztailaren 1etik irailaren 30era bitarteko ikastaroak bilduko dituena. **Ikastaroa** aipatu datetarako **bukatuta** egon beharko da. Ziurtagiriaren **eragin-datak** ebaluazio-garai bakoitzeko **urtarrilaren 30a, apirilaren 30a, uztailaren 30a eta urriaren 30a** izango dira.
- * **Azterketa gaindituta (BEC), mailaren bat gainditu** duen ikasleak, azken emaitzak atera ondoren eska dezake ziurtagiria HABEren web-orrian.

ERREKLAMAZIOAK (HABEren tituluak)

- * **A1, A2 eta B1 mailei dagokienez**, ikasleak egin dituen ebaluazio-jarduera egiaztatzaileak eta horien ebaluazioak ikusteko eta euskaltegian erreklamazioak aurkezteko eskubidea izango du. Erreklamazioak irailaren lehenengo 5 lanegunetan eta udako ikastaroari dagokienez, azaroaren lehenengo 5 lanegunetan egin ahal izango dira idatziz eta euskaltegira igorriko dira postaz (Gardoki 3-1. sol. Bilbo). Honako datu hauek agertu behar dira: izen-deiturak, jakinarazpenerako helbidea, nortasun-agiria, egiten duen eskaera edo erreklamazioa, egiaztatze-maila, data eta sinadura. Zuzendariak irailaren 15erako ebatziko ditu eta udako ikastaroari dagokienez, azaroaren 15erako. Erantzunarekin ados ez badago, euskaltegiak erreklamazioa ebatzi duenetik bost egun baliiodun izango ditu HABEren aurrean aurkezteko (epeak HABEren web-orrian argitaratuko dira).
- * **B2, C1 eta C2 mailei dagokienez**, interesdunak erreklamazioa jar dezake HABEren zuzendari nagusiaren aurrean onartuen zerrendaren aurka aurkezten denean, eta dagokion Epaimahaiaren aurrean, prozeduran edota emaitzetan nolabaiteko errakuntzarik gertatu dela uste badu. Erreklamazioak hiru eguneko epean aurkeztu beharko dira, onartuei buruzko erabakia atera edota proben emaitzak ezagutzera eman eta biharamunetik kontatzen hasita. Erreklamazioak, emaitza orokorrak onartu baino lehen ebatziko dira. Halaber, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango du HABEren behin betiko emaitzak argitaratu eta hurrengo hilabetean. Erreklamazioak zein errekurtsioak helbide honetara igorriko dira: Vitoria-Gasteiz kalea 3,6.a, 20018 Donostia.

DIRU-LAGUNTZAK

- * **HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak** gainditu dituztenek, HABEren diru-laguntzak eskuratu ahal izango dituzte, betiere HABEK ezarritako baldintzak beteta. Eskaera www.habe.euskadi.eus web-orrian egin beharko da, **Sarbidean** klik eginez. Eskaera irail aldera egiten da.
- * **Bizkaiko Foru Aldundiak 2018an A1, A2, B1 edota B2 euskara-mailak (titulu ofizialak)** gainditu dituztenei **deskontu-bonua** emango die hurrengo ikasturterako. Eskaera www.bizkaia.eus/euskaratxartela web-orrian egiten da, uztail aldera. Behin eskaera eginda, kontu-bonua web-orriaren bitartez eskuratu ahal izango da eta **euskaltegian entregatu beharko da matrikula egitean, irailean**.
- * **Udalen laguntzak** eskuratzeko baldintzak zein diren dagokion udalean galdetu beharko du ikasleak, eta

aurkeztu beharreko agiria bulegoan prestatuko dugu. Bilboko Udalaren diru-laguntzen baldintzak orain arte apirilean argitaratu izan dira.

INFORMAZIO OFIZIALAK JASOTZEKO BIDEAK

- * Oro har, informazio ofiziala HABEk argitaratuko du bere web-orrian: www.habe.euskadi.eus.
- * Ikaslea dagokion informazioa lortzearen erantzule izango da. Euskaltegiak bere esku dagoen guztia egingo du ikasleari informazioa lortzen laguntzeko; hala ere, **informazioa lortzea ikaslearen ardura da.**
- * Euskaltegiak informazioa ohar-tauletan eta gure web-orrian dagoen Berriak atalean jarriko du. Halaber, posta elektronikoz bidaliko du bulegoa@ulibarri.eus helbidetik zure matrikula-fitxan adierazitako helbidera.

KEZKAK, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK

- * Iradokizun-orriak ikasgela guztietan zein sarrerako iradokizun-kutxaren ondoan daude, baita web-orrian ere www.ulibarri.eus Ikaslea atalean. Kexak edo iradokizunak idatziz egin beharko dira.

ULIBARRI KULTURA

- * Kultur ekintzak ikaste prozesuaren parte dira, parte garrantzitsua, euskaraz aritzeko aukera eman ez ezik, euskal kultura ezagutzeko eta bizitzeko bidea eskaini ere egiten digute eta. **Kultura arduradunak** hilerio antolatuko ditugun kultur ekitaldiak helaraziko dizkio ikasleari irakaslearen bitartez edo ohar-taulen bidez.
- * **Mintzakide programaren** bidez bikoteak edo hirukoteak antolatu nahi ditugu astean behin ordubetez euskara praktikatzeko. Horren inguruko informazioa www.ulibarri.eus web-orrian dago, **Zerbitzuak** atalean.

DATUEN BABESA

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta lege hori garatzen duten bestelako xedapenek ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu fitxa honen bidez jasotzen ditugun zure datu pertsonalak, eta ikas-prozesuaren garapenetik eta kudeaketatik eratorritakoak, euskaltegiaren fitxategi automatizatu batean eta HABEren "Ikasleak" fitxategian erregistratuko direla. Bi fitxategi hauen helburua bi erakundeetako arduradunek helduen euskalduntzean dituzten eginkizunak burutzea izango da, eta, batez ere, ikas-prozesua bera, HEOCaren gaitasun-mailen egiaztapena, eta ikasleen diru-laguntzen eta ikastaroen finantziazioaren kudeaketa burutzea.

Idatzi honen bitartez, baimena ematen duzu ikastaroren batean matrikulatuz gero edota ikasleen diru-laguntzen deialdietan parte hartuz gero, zure datuak Foru Aldundiei edota udalei lagatzeko, erakunde bakoitzak helduen euskalduntze arloan ematen dituen diru-laguntzak kudeatu ahal izateko, eta diru-laguntza guztien arteko gainfinantzazioa saihestu ahal izateko.

Fitxategian sartu, zuzendu edo deuseztatzeko eskubidea balia dezakezu, euskaltegiko idazkaritzan eta HABEko Erregistroan dagokion eskaera aurkeztuz, (HABEri dagokionez, honako helbide honetan: Vitoria-Gasteiz kalea, 3.; 20018 Donostia - Gipuzkoa).

Fitxa honetan adierazitako datuak eta ikas-prozesutik eratorritakoak eskuragarri izango dituzu, etengabe, www.habe.euskadi.eus orrialdean dagoen Matrikulazioaren jarraipenerako atalean, dagokizun kodea eta pasahitza erabiliz (lehen aldiz sartzeko, zure NAN zenbakia erabili beharko duzu, bai kode baita pasahitza gisa ere; ondorengoetarako aldatzeko aukera duzu).

Euskaltegia eta HABE ez dira erantzule izango ikasleak emandako datuak benetakoak ez badira.

Datu hauek gorde daitezke euskaltegian, etorkizunari begira, informazioa bidaltzeko. Jaso nahi ez baduzu, jakinaraz diezaguzu.

Ulibarri Kulturak antolatutako ekitaldietan argazkiak edo grabazioak egin daitezke, betiere, helburu didaktiko nahiz sustapen-helburuekin Ulibarri Euskaltegia SKM kudeatutako web, blog, sare sozial edo katalogoetan. Agertu nahi ez baduzu, jakinaraz diezaguzu.

Irakurri ditut nire datuen tratamenduarekin eta zesioarekin lotuta goian aipaturiko baldintzak eta onartzen ditut.

Jaso nahi ditut herri administrazioek bultzaturiko euskalduntzearen arloarekin lotutako kanpainei edota diru-laguntzei buruzko informazioa.

Lan-jarduera burutzen dudan enpresak burutuko dudan ikastaroa kudeatu edota ordainduko balu, baimena ematen diot Ulibarri Euskaltegiari nire datu akademikoak enpresari jakinarazteko.

MATRÍCULA Y TASAS

- * Los grupos tienen que estar formados por 9 personas como mínimo.
- * Cursos de 10, 7,5, 6 ó 5 horas a la semana y C2 online: la segunda parte ha de abonarse la primera semana de diciembre; comenzado en enero, la segunda parte la última semana de febrero.
- * Cursos de 20 horas a la semana: realizando el pago del trimestre en dos plazos, la segunda parte se abonará a las cuatro semanas; abonando el curso completo, la segunda parte se abonará la segunda semana de diciembre.
- * Cursos de verano: tendrán que abonarse en un plazo.
- * **Autoaprendizaje:** el curso de 9 meses se podrá pagar en dos plazos, el segundo a mitad de febrero. El curso de cuatro meses y el de verano tendrán que abonarse en un plazo.
- * **Formas de pago:** domiciliación o transferencia. [Kutxabank ES32 2095 0037 00 9107033096](https://www.kutxabank.es)

DEVOLUCIÓN DE MATRÍCULA Y BAJA

- * Si la persona causa baja los tres primeros días del curso, se le devolverá la cantidad abonada (en el caso del barnetegi, se guardará lo correspondiente al curso, sin embargo, no se devolverá lo que corresponda a la pensión); **en el caso de autoaprendizaje**, si la persona causa baja en la primera semana del curso.
- * Se guardará la cantidad proporcional al número de horas de clase no recibidas **desde la notificación de la baja en secretaría** hasta final de curso (septiembre). No se guardará cantidad alguna de las bajas causadas a partir de la mitad del curso.
- * Si habiendo abonado todo el curso causa baja en diciembre, se le devolverá lo correspondiente al segundo plazo.

NIVELES DE EUSKERA. CONVALIDACIÓN DE TÍTULOS

	A1	A2	B1	B2	C1	C2
HABE	A1	A2	B1	B2	C1	C2
HAEE-IVAP			Perfil 1	Perfil 2	Perfil 3	Perfil 4
OSAKIDETZA			Perfil 1	Perfil 2	Perfil 3	Perfil 4
ERTZAINZA				Perfil 1 Ertzaintza	Perfil 2 Ertzaintza	
EDUCACIÓN				Perfil 1 Docentes	Perfil 2 Docentes EGA	
ESCUELA DE IDIOMAS			Nivel Intermedio	Nivel Avanzado	Nivel de Aptitud C1	

CURSO

- * **El calendario** estará en la página web www.ulibbarri.eus en el apartado **Alumno/a**.
- * El euskaltegi registrará las **horas de asistencia**. Lo que haya que justificar lo comunicará la persona interesada en el lugar que corresponda (*el alumnado de IRALE entregará los justificantes al/a la docente*).
- * **Para venir a turnos** hay que hacer la solicitud en secretaría a principios de curso.
- * Los tutores legales de los/as alumnos/as menores de 18 años que quieran recibir información sobre los datos académicos deberán rellenar el impreso LOPD en secretaría.
- * Cada alumno/a puede ver sus **datos académicos** en www.habe.euskadi.eus, en acceso alumnado, introduciendo el usuario y la clave (si no lo has cambiado, debes introducir el **DNI sin letra** en ambos).

PRUEBAS Y EVALUACIONES DEL EUSKALTEGI

- * **PRUEBAS:** se realizarán la prueba de diagnóstico inicial, la prueba intermedia y la prueba final de nivel (definidas por los/as responsables de nivel). **Excepciones:**
 - a) **Prueba de diagnóstico inicial.** Si ha estado en el euskaltegi los 2 últimos meses, se le puede admitir el nivel otorgado; si ha estado en otro euskaltegi los 2 últimos meses, se le puede admitir la trayectoria; si tiene título oficial y/o equivalente, se le puede admitir. En esos casos el/la nuevo/a profesor/a lo confirmará o le realizará la prueba de diagnóstico inicial al/a la alumno/a.
 - b) **Prueba intermedia.** En estos casos no es necesaria: cuando el/la alumno/a tiene A1A0 y A2A1 como punto de partida; en el caso de las altas tardías, cuando las fechas de evaluación del grupo no den opción; en los niveles B2, C1 y C2, cuando se adelanta la evaluación a marzo de cara a la primera convocatoria de HABE; en los módulos de pocas horas (determinado en el documento Probak eta ebaluazioak, en las tablas por módulos).
 - c) **Al/a la alumno/a que no quiera realizar las pruebas se le dará un documento para firmar.**
- * Para aprobar el nivel **es necesario aprobar la prueba final de nivel** (aprobarla no significa que se haya aprobado el nivel, para argumentar el suspenso son necesarios los trabajos de clase). En evaluación continua, la escritura y el oral de la prueba final de nivel serán corregidas por el/la profesor/a del grupo y otro/a profesor/a (en la semana determinada).
- * **EVALUACIONES (subir las notas a la plataforma de HABE):** se realizará al llegar al número de horas necesarias para completar el nivel y/o al finalizar el curso. Se puede realizar una evaluación intermedia cuando se realiza la prueba intermedia para acreditarle el nivel a algún/a alumno/a (ya que puede haber

niveles de partida diferentes). Para ello, se utilizará la prueba de finalización del nivel.

- * **El/la profesor/a comunicará a los/as alumnos/as** a principios de curso cuándo se realizarán **las pruebas de evaluación. Las fechas de evaluación** están determinadas en el documento Probak eta ebaluazioak, en las tablas por módulos y se realizarán **en la semana determinada.**
- * Mientras que **los niveles B2, C1 y C2** no se acrediten mediante evaluación continua, **en marzo** se realizará **una evaluación** de cara a la primera convocatoria de HABE, y los primeros días de septiembre de cara a la segunda convocatoria.
- * **Las pruebas de comprensión oral y escrita de los niveles B2, C1 y C2:** HABE aceptará las calificaciones otorgadas por el euskaltegi en esas destrezas. Para ello se emplearán las calificaciones relativas a la prueba de finalización del nivel realizada para acreditar el nivel. *En el BEC no se realizarán esas destrezas.*
- * Al/a la alumno/a que solo haya aprobado las **pruebas de comprensión oral y escrita** en la primera convocatoria **se le guardarán los resultados** de las pruebas de dichas destrezas **para la segunda convocatoria**, y por lo tanto, solo tendría que realizar las pruebas de expresión oral y escrita. Así mismo, si también aprobase **la prueba de expresión escrita**, solo tendría que realizar la prueba de expresión oral en la segunda convocatoria.

TÍTULOS OFICIALES (REQUISITOS)

- * Estar matriculado en el Euskaltegi permite obtener los títulos de **HABE**, cumpliendo las condiciones exigidas por HABE.
- * La **información actualizada** se publicará en la **página web de HABE: www.habe.euskadi.eus**
- * Estas son los requisitos principales de la resolución del **año 2018:**
- * **Requisitos para acreditar los niveles de competencia A1, A2 y B1 mediante actividades de evaluación en el contexto de la evaluación continua:**
 - Con carácter general, el/la alumno/a deberá haber cursado **50 horas lectivas** como mínimo, y **30 horas lectivas como mínimo en los cursos de verano.**
 - Deberá haber asistido al **75 % de las horas lectivas impartidas como mínimo en los cursos presenciales;** y en la modalidad de **autoaprendizaje**, en las **sesiones de oralidad, al 7,5 % del total de horas teóricas** del curso como mínimo.
 - Deberá tener el **nivel aprobado** (aprobada la prueba final que acredita el nivel) y al comienzo del curso el nivel de partida deberá ser, como mucho, uno inferior al que acredita el nivel. (Las fechas de evaluación están determinadas en el documento Probak eta ebaluazioak, en las tablas por módulos).
- * **Requisitos para tomar parte en la convocatoria cerrada para acreditar los niveles de competencia B2, C1 y C2:**
 - El/la alumno/a deberá haber cursado **30 horas lectivas** como mínimo; y en la modalidad de **autoaprendizaje, 15 horas online, una tutoría y 3 sesiones de grupo como mínimo.** *En los cursos de septiembre, en el nivel B2 y C1, solamente podrán realizar la prueba que acredita el nivel los/las alumnos/as que empiecen dicho curso desde el primer día.*

NIVELES B2 Y C1

1.- Estar matriculado/a en un euskaltegi en algún curso iniciado a partir del 1 de junio de 2017.

2.- Tendrá que tener superado en los cursos iniciados a partir del 1 de junio de 2017 en el euskaltegi **el nivel que quiere acreditar** para el 23 de marzo de 2018, en la primera convocatoria; y para el 6 de septiembre de 2018, en la segunda convocatoria.

La persona que se haya matriculado para la obtención del nivel C1 y que no haya superado el nivel para la fecha fijada se podrá presentar al nivel B2, siempre que haya superado un subnivel en la fecha fijada (teniendo B2B2 como punto de partida, si ha aprobado el C1B2).

El/la alumno/a que no llegando en la prueba de expresión escrita al mínimo de 15 puntos obtuviera al menos 13 puntos, podrá compensarlos con los que obtenga en la prueba de expresión oral. En cualquier caso, deberá obtener como mínimo 13 puntos en la prueba de expresión escrita, para poder presentarse a la prueba de expresión oral. Si no lo ha compensado en la primera convocatoria, no se le guardará el resultado de la prueba de expresión escrita para la segunda convocatoria.

NIVEL C2

1.- Estar matriculado/a en un euskaltegi en algún curso iniciado a partir del 1 de octubre de 2016.

2.- Tendrá que tener superado en los cursos iniciados a partir del 1 de junio de 2017 en el euskaltegi **el nivel que quiere acreditar** para el 23 de marzo de 2018, en la primera convocatoria; y para el 6 de septiembre de 2018, en la segunda convocatoria.

Una vez que el euskaltegi apruebe el proyecto, podrá utilizarse en las dos siguientes convocatorias (las dos convocatorias del año 2018), y habiendo aprobado las pruebas de comprensión oral y escrita, se le guardarán los resultados para las siguientes convocatorias que le correspondan. Habiendo aprobado el

euskaltegi el proyecto en el curso 2016-2017, los/as alumnos/as que todavía no hayan acreditado el nivel podrán participar en las convocatorias admitidas en la resolución de ese curso.

- * HARE publicará en un mes desde que sale la resolución el **plazo de inscripción** y realización del pago de la matrícula, a través del portal www.habe.euskadi.eus. La matrícula de HARE suele hacerse sobre marzo/abril para la primera convocatoria y sobre septiembre para la segunda convocatoria. Estos son los plazos de matrícula para los procesos de acreditación del **año 2018**: del 9 al 16 de abril para la primera convocatoria y del 14 al 15 de abril para la segunda convocatoria.
- * **HARE realizará en septiembre del año 2018 una convocatoria libre de examen para la obtención de niveles de capacitación B1, B2, C1 y C2, dirigida a todas las personas que estén interesadas.** Estos son los requisitos para matricularse:
 - Tener 17 años cumplidos o cumplirlos en el año 2018
 - Para matricularse en el nivel C2 tener el certificado del nivel C1 o estar exento.
 - En esta convocatoria matricularse, como máximo, para la acreditación de dos niveles.
 - Formalizar debidamente la matrícula y el abono de la misma en el plazo establecido.** La participación en un nivel determinado en esta convocatoria libre será incompatible con la participación para el mismo nivel en la convocatoria cerrada.*
- * Plazo de inscripción y realización del pago de la matrícula: **del 14 al 25 de septiembre de 2018, ambos inclusive. El precio de la matrícula será de 60 euros** por cada nivel.
- * **En el plazo de diez días hábiles** a partir del siguiente a la finalización del plazo de matriculación, HARE publicará en su portal www.habe.euskadi.eus el **calendario** previsto para el desarrollo de las pruebas de acreditación correspondiente a cada uno de los niveles: fecha para la notificación de admisiones, lugar y fechas para la realización de las pruebas y fechas en las que se darán a conocer los resultados.
- * HARE conformará el calendario y decidirá los lugares de exámenes, en función de la demanda y disponibilidad de sus recursos para atenderla debidamente. En base a dichos presupuestos, HARE podrá realizar convocatorias para la realización de pruebas distintas en un solo lugar y en un día determinado.
- * **El/la alumno/a podrá presentarse por libre a los exámenes del A2, B1 y B2 de la Escuela de Idiomas y al examen de EGA.** Según las convocatorias realizadas hasta ahora, la matrícula de la Escuela de Idiomas suele ser sobre febrero y la de EGA a principios de enero para la primera convocatoria y a principios de julio para la segunda.

CERTIFICADOS DE HARE

- * **La evaluación continua se aplicará con carácter certificativo en cuatro periodos** a lo largo del año: el primero, el que comprende los cursos impartidos entre el 1 de octubre y el 31 de diciembre; el segundo, el que comprende los cursos impartidos entre el 1 de octubre y el 31 de marzo; el tercero, el que comprende los cursos impartidos entre el 1 de octubre y el 30 de junio; y el cuarto, el que comprende los cursos impartidos entre el 1 de julio y el 30 de septiembre. En todos los casos, el **curso** deberá estar **finalizado**. Las **fechas de efectividad** de los certificados correspondientes a cada uno de los periodos de evaluación serán el **30 de enero, el 30 de abril, el 30 de julio y el 30 de octubre**.
- * Quien haya acreditado un nivel **aprobando un examen (BEC)**, podrá solicitar el certificado a través de la página web de HARE una vez hayan salido los resultados.

RECLAMACIONES (títulos de HARE)

- * **Respecto a los niveles A1, A2 y B1**, el/la alumno/a podrá consultar las actividades de evaluación realizadas con valor acreditativo y las evaluaciones correspondientes y presentar reclamaciones en el euskaltegi. Las reclamaciones se podrán realizar los primeros cinco días laborables de septiembre, y los 5 primeros días laborables de noviembre en los cursos de verano. Las reclamaciones se realizarán por escrito y se remitirán por correo postal al euskaltegi (Gardoki 3-1. sol. Bilbo). Deben constar los siguientes datos: nombre y apellidos, dirección a efectos de notificación, número de DNI, objeto de la reclamación que presenta, nivel de acreditación, fecha y firma. El director las resolverá para el 15 de septiembre, y para el 15 de noviembre en los cursos de verano. En caso de disconformidad ante la respuesta a la reclamación realizada en el euskaltegi, el/la alumno/a tendrá derecho a presentar reclamación en HARE, en el plazo de los cinco días hábiles siguientes a la resolución del euskaltegi (los plazos se publicarán en la página web de HARE).
- * **Respecto a los niveles B2, C1 y C2**, la persona interesada en el proceso de acreditación de estas convocatorias podrá presentar reclamación ante HARE en el plazo de tres días, contados desde el día siguiente a la publicación del listado de personas admitidas o a la publicación de los resultados de las pruebas. Las reclamaciones se resolverán antes de aceptar los resultados generales. Asimismo, podrán presentar recurso de alzada ante HARE en el plazo de un mes desde la publicación de los resultados definitivos de los exámenes. Las reclamaciones y los recursos se remitirán a esta dirección: calle Vitoria-Gasteiz 3, 6º, 20018 Donostia.

SUBVENCIONES

- * Las personas que hayan superado los niveles de euskera de HABE, o sus equivalentes, podrán percibir las subvenciones de HABE, siempre que se cumplan las condiciones estipuladas por HABE. La solicitud tendrá que realizarse en la página www.habe.euskadi.eus, haciendo clic en **Acceso**. La solicitud se suele realizar sobre el mes de septiembre.
- * **En 2018 la Diputación Foral de Bizkaia** dará un **bono-descuento** para el curso siguiente a los que aprueban **los niveles de euskera A1, A2, B1 y/o B2 (títulos oficiales)**. La solicitud se realiza a través de la página www.bizkaia.eus/euskaratxartela, hacia el mes de julio. Una vez hecha la solicitud, se podrá obtener el bono-descuento a través de la página web y **se deberá entregar en el euskaltegi al realizar la matrícula, en septiembre**.
- * Para conocer las condiciones para poder acceder a las **subvenciones municipales**, el/la alumno/a deberá dirigirse a su ayuntamiento; en secretaría preparamos el certificado a presentar. Las condiciones para las subvenciones del Ayuntamiento de Bilbao hasta ahora se han publicado en abril.

CANALES DE INFORMACIÓN OFICIAL

- * En términos generales, HABE publicará toda la información en la página www.habe.euskadi.eus.
- * El/la alumno/a se responsabilizará de obtener la información correspondiente. El Euskaltegi hará todo lo que esté en su mano para ayudar al/a la alumno/a a obtener la información; sin embargo, **obtener la información es responsabilidad del/de la alumno/a**.
- * El Euskaltegi dispondrá la información en los tablones de anuncios y en el apartado Noticias de nuestra página web. Así mismo, enviará la información por correo electrónico **desde la dirección bulegoa@ulibarri.eus a la dirección señalada en tu ficha de matrícula**.

DUDAS, QUEJAS Y SUGERENCIAS

- * Las hojas de sugerencias se encuentran en todas las aulas así como junto al buzón de sugerencias situado en la entrada del centro, también en la página web www.ulibarri.eus en el apartado **Alumno/a**. Las quejas o sugerencias deberán realizarse por escrito.

ULIBARRI KULTURA

- * Las actividades culturales forman parte, y muy importante, del proceso de aprendizaje, ofreciéndote no solo la posibilidad de hablar euskera, sino también una manera de conocer y vivir la cultura vasca. **La responsable de Cultura** hará llegar al alumnado las actividades culturales que realizaremos todos los meses a través del profesor.
- * Mediante el **programa Mintzakide** pretendemos organizar grupos de dos o tres personas para practicar euskera durante una hora un día a la semana. Toda la información en la página www.ulibarri.eus, en el apartado **Servicios**.

PROTECCIÓN DE DATOS

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y las disposiciones que la desarrollan, se le informa que los datos personales recogidos en esta ficha y los derivados de la gestión y desarrollo del proceso de aprendizaje serán incluidos en un fichero del euskaltegi, así como en el fichero de alumnos de HABE. La finalidad de sendos ficheros es cumplir las funciones que sus respectivos responsables tienen atribuidas en la euskaldunización de adultos y sobre todo, la gestión del mismo proceso de aprendizaje, la certificación de los niveles de euskara del HEOC, las subvenciones a los alumnos y alumnas así como la financiación de los cursos.

Por medio de la presente autorización, tanto al matricularse en algún curso como en la participación de las convocatorias de subvención, da el correspondiente permiso para la cesión de estos datos a las Diputaciones Forales y ayuntamientos para la gestión de las convocatorias de subvenciones de estas entidades y para evitar la sobre financiación de todas las subvenciones.

Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación y cancelación, dirigiéndose a la secretaría del centro o bien enviando un escrito a HABE, en la siguiente dirección: C/ Vitoria - Gasteiz, nº 3; 20018 Donostia - San Sebastián (Gipuzkoa).

Las datos recogidos en esta ficha y los derivados del proceso de aprendizaje los tendrá disponibles permanentemente en el apartado referente al seguimiento de la matriculación en la web de HABE www.habe.euskadi.eus, utilizando el código y clave de acceso correspondientes (al utilizarlos por primera vez, deberá introducir el número del DNI en ambos casos, pudiendo cambiarlos para futuros accesos).

Tanto el euskaltegi como HABE nos se hacen responsables si los datos proporcionados por el alumno o alumna no son correctos.



ARGIBIDEAK INSTRUCCIONES

Edizioa: 14
Ber.: 18-08-10
Orria: 9-9



Estos datos pueden ser conservados para el envío de información. Si no desea recibir información, háganoslo saber.

En los actos organizados por Ulibarri Kultura podrán realizarse fotos y grabaciones, con finalidades didácticas y promocionales en las webs, blogs, redes sociales o catálogos gestionados por Ulibarri Euskaltegia S.C.L. Si no desea aparecer, háganoslo saber.

He leído las condiciones relativas al tratamiento y cesión de mis datos y las acepto.

Deseo recibir información sobre subvenciones y campañas relacionadas con la euskaldunización fomentadas por las administraciones públicas.

En el caso de que la empresa en la que desarrollo mi actividad profesional gestione y/o abone el curso a realizar, consiento expresamente a Ulibarri Euskaltegia la comunicación de mis datos académicos a la empresa.